

Larunbata, 2008ko apirilak 12, 19:29:26an berritua

[PAPERREKO EDIZIOA](#) [EUSKAL HERRIA](#) [MUNDUA](#) [KIROLA](#) [PLAZA](#)[EZTABAIDAGUNEA](#) [BLOGAK](#)
[BEREZIAK](#)**Papereko edizioa** Asteartea, 2007ko uztailak 31[SAILAK >](#)[Harian](#) | [Iritzia](#) | [Kirola](#) | [Agenda](#) | [Plaza](#)**PLAZA**[Lagunekin joateko beti teink](#)

Duela hamabost urte, adiskideen arteko abentura bat abiatu zen: I.Teink saria.

Xan Aire

Euskal Herriko kostaldea batelikuz zeharkatu. Ulises berak ere ez zuen eginen. Bi lagun izanez gero, zergatik ez? Ez zen kondaira bihurtuko, hori ez. Batelikuak ez du belaontziaren ospea, traineruaren arrakasta ere ez. Arrantzaleen ontzi txiki bat da, hiru arraunlariantzat egina, itsas bazterreko arrantzarentzat eraikia. Adiskidetasunaren zuran zizelkatua den ontzitxoa.

Teink saria ere adiskide batzuen arteko abentura da. Badu hamabost urte lehiaketa bizirik dagoela. Baina proiektua 1992an sortu zen. «Adiskide argazkilari batek bidaia baten egiteko ideia izan zuen. Donibane Lohizune eta Bilbo lotu zituen hiru astez bi lagunekin, batelikuz», kontatu du Titou Larregainek, Ur Ikara elkarte antolatzailearen idazkariak. «Argazkiak hartu zituzten bidaia denboran, eta guri erakutsi. Harriturik geratu ginen ikusiz nolako leku zoragarriak bisitatu zituzten». Urte bat berantago, zortzi bateliku muntaturik, Bizkaitik Lapurdira lau egunez arribatu ziren lehen Teink sariako lehiakideak.

Hamabost urte berantago, Euskal Herriko kostaldean sei egunez 100 milia beteko dituzte 15 taldeek. Gehienak lapurtarrak dira, bi salbu: Lekeitiotik eta Zumaiaetik datoz sei gizon. Sei egun, sei etapa: Bilbo-Plentzia atzo, Plentzia-Elantxobe gaur, Elantxobe-Lekeitio bihar, Lekeitio-Zumaia ostegunean, Zumaia-Donostia ostiralean, eta Donostia-Donibane Lohizune larunbatean. Helmuga 17:00etan pasatu behar lukete irabazleek.

LEHIAKETA, BESTA, ERAKUSKETA. Sei etapa, bederatzi geldidune. Lehiakideak ez dira abenturazaleak baizik, bestazaleak ere aurkitzen dira haien artean. Etapa eguerditan pausatuz egiten dute gehienetan teinkalariak. «Normalki, herriko etxe ezberdinek ongiatorria egiten digute, bai bazkaltzeko, bai afaltzeko», azaldu du Larregainek. Baina arraunlariak ez dira eskuak hutsik arribatuko portuetara, Ur Ikara elkarteak Teink sariaren argazki erakusketa jarriko baitu pausatzen den portu bakoitzean.

Batelikuaren aztarna utzi nahi dute antolatzaileek. Bide batez, Teink sariarena ere bai. «1992an bi ontzi baizik ez ziren geratzen», oroitzen da Larregain. «Horietako bat moldeatu eta bateliku batzuk ontziolari eginarazi genituen». Egun, elkarteak bost bateliku ditu.

Handia ez baldin bada ere, ontzitxoa pizua da, eta ez da lehiaketarako pentsatua. «Batelikuan ibiltzeko indarra behar da, eta iraupena ere, funtsean», azpimarratu du Larregainek. Horregatik, Teink sariako parte-hartzaileak apirilean hasten dira entrenatzen. Gogor, gainera, astean hiru aldiz aritu behar dute, baita herrietako bestetan antolatutako diren lehiaketatxoetan ere.

Aurtengo abenturarako teink, edo prest, agertu dira antolatzaileak, batez ere seguritate mailan. «Iaz ekaitzak harrapatu gintuen lehen egunean, eta ontzi bat uzkali zen. Beldurtu ginen, beraz, aurten neurri egokiak hartu ditugu». Jean-François Irigoien, Ur Ikarako lehendakariak erraten duen bezala: «Pasioak eta adiskidetasunak elkartu gaitu hastapenean. Hamabost urte berantago, oraindik hor gaude». Poseidonek ere ez du adiskideen 15. ametsa apurtuko.

BLOGAK[Mendiko behatokia](#)
'Apirileko' ilgora

Erantzunak: 0

[Konponbidearen talai](#)
Madrilgo inpresioak

Erantzunak: 0

[Nafar periferiatik](#)
Gorrotto eskubidea u

Erantzunak: 2

HARPIDEDUNEN KIOSKOA**Saridunak****EZTABAIDAGUNEA**[Gatazka gainditzeko Ib](#)
[ibilbide orria](#)

Eman zure iritzi

[Emaiguzu denborale](#)
[kalteen berri](#)

Eman zure iritzi

[Hauteskundeen em](#)

Eman zure iritzi

[Nor izango da Euskal](#)
[Itzulian aurreneko Eus](#)

Eman zure iritzi

© BERRIA-Edizio Digitala
berria@berria.info - www.berria.info[Lege Informazioa](#)

Euskal Editorea S.L. , Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel 943 304 030 Fax 943 590 172

